

## EUSKAL HERRIAREN HISTORIA

Antonio Rivera (zuz.)

Lur Entziklopedia Tematikoa, Bilbo 1998, 439 or.

## I.

Albiste pozgarria dugu, inondik ere, Euskal Herriaren historiari buruzko euskaraz idatzitako lan baten argitalpena, batez ere lan mardula eta mamitsua baldin bada, esku artean daukagun hau bezala. Printzipioz, behintzat. Izan ere, ez dira hainbeste euskaraz idatzitako mota honetako lanak, eta are gutxiago Lur Entziklopediak markaturiko ildoetatik abiatzen direnak: historiografia zientziaren aldetik zehatzta, jite ideologiko zehatzik gabekoa, zazpi probintzien historia barneratuz, eta euskaraz gainera. Azken aldi honetan Euskal Herriaren historia orokorrari —edo epealdi ezberdinei— buruzko sintesiak berriro ugaltzen ari badira ere<sup>1</sup>, ezin esan euskarazko lanak ugariak direnik: historiografia abertzalearen ikurtzat hartua izan den Martin Ugalderearen sintesi *klasikoaren* berrargitalpenean ere ez da sartu aurreko aleetako batzuei gehitu zitzaizkien euskal itzulpena<sup>2</sup>.

Lan hau aztertzerakoan kontuan izan behar dugun lehenengo gauza da lan kolektiboa dela, honek dituen bertute eta akats guztiekin; beraz, ho-

rrek esan nahi du ukitzen duten gaietan adituek (ustez, behintzat) idatzi dituztela liburuko atalak, baina, aldi berean, lan kolektiboei gertatu ohi zaien bezala, gora-behera handiak aurki ditzakegula atalen artean, bai formari, bai edukiari, bai metodologiari, eta bai kalitateari dagokienez. Kasu honetan, berrogeita bat historialarik parte hartu dute lanaren erredakzioan, nahiz eta honek ez duen esan nahi berrogeita bat atal aurkituko ditugunik: egile batzuk atal bat baino gehiagoz arduratzen dira (hamabi egilek bi atal edo gehiago idatzi dituzte)<sup>3</sup>, eta beste atal batzuk lau eskutara idatzi dira (bost); hala, guztira, lau bloketan banatutako luzera eta antolaketa nahikoa ezberdineko hirurogei kapituluk osatzen dute *Euskal Herriaren Historia* hau, eta hauei sarrera orokor bat eta bibliografia atal bat gehitu behar dizkiegu.

Obraren zuzendaria Antonio Rivera dugu, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Egungo Historia Saileko irakasle titularra, aski ezaguna Errestaurazio garaiko Gasteizi buruz eta XIX-XX. mendeetako langile mugimenduz idatzi dituen lanengatik<sup>4</sup>. Entziklopedia

1. Besteak beste, *Uztaro* aldizkarian aipatu ditugun Txalaparta argitaletxeko *Historia de Euskal Herria*-ren hiru liburukiak, ikus 19. zbk. (1996), 77-84 orr.; 20. zbk. (1997), 119-123; 23. zbk. (1997), 107-111.

2. *Síntesis de historia del País Vasco*, bi liburuki (Donostia, 1997).

3. J. R. Díaz de Durana eta J. A. Fernández de Larrea, guztira, zortzi atalez arduratzen dira; A. Rivera, lautaz; E. García, hirutaz; A. Saenz de Buruaga, J. Fernández Eraso, J. A. Lema, E. Peña, M. S. Tena, R. Porres, C. Rubio eta M. González Portilla, bakoitza bitaz.

4. Bere lanik ezagunenak dira, hiru aipatzearen, *La conciencia histórica de una ciudad: el "vitorianismo"* (Gasteiz, 1991), *La ciudad levítica. Continuidad y cambio en una ciudad del interior (Vitoria, 1876-1936)* (Gasteiz, 1992), eta *Manual de historia social del trabajo* (Mikel Aizpururekin batera, Madril 1994; euskarazko itzulpena dago: *Lanaren gizarte historiaren esku-liburua*, Bilbo, 1995).

tematikoaren liburuki hau, esan bezala, lau bloke nagusitan zatitu dute: Historiaurrea eta Antzin Aroari buruzko lehenengoaren koordinazioaz Agustín Azkarate arduratu da; Erdi Aroko bigarrenaz, J. R. Díaz de Durana eta J. A. Fernández de Larrea; Aro Berriko hirugarrenaz, R. Porres; eta, Gaur Egungo Arokoaz, A. Rivera bera. Bostak EHUko irakasleak dira, eta Gasteizko Filologia eta Geografi-Historia fakultatean aritzen dira, nor bere arloan. Zuzendariak berak sarreran dioskunez, «historia honen oinarritzko ezaugarria da unibertsitateko profesionalak idatzia dela» (15. orr.), eta hala da, hein handi batean behintzat, egile guztiek unibertsitatearekiko nolabaiteko lotura aitortzen baitute, bi arkeologoren kasua alde batera uzten badugu. Sarreran ere irakasleen jatorriaren aniztasunaz hitz egiten zaigu (ez dira bakarrik EHUkoak, baizik eta baita «Madrilgo *Complutense*-koak, Nafarroako Unibertsitate Publikokoak [NUP], Salamancakoak eta Kantabriakoak» ere, 16. orr.), nahiz eta, azken batean, EHUko irakasleen pisua erabakiorra baino gehiago izan: 41 egileetatik, 35 EHUri lotuta daude, bi NUPi, eta bana Madrilgo, Salamanca eta Kantabriako Unibertsitateei (zenbaketa atalka egingo bagenu, EHUtik kanpokoen ekarpena oraindik gehiago murriztuko litzateke). Azpimarratzekoa da, baita ere, jatorri-*aniztasun* hori soilik lehenengo bi blokeetan gertatzen dela, hots, Aurrehistoria-Antzin Aroan eta Erdi Aroan, Aro Berri eta Egungo Historiako atalak ia EHUko historialariek soilik baliatzen diren bitartean (J. P. Fusi entzutetsua Madrilgo *Complutense*-ko katedraduna bada ere, egiazki ia “etxekotzat” hartu beharko genuke, EHUko Egungo Historia saileko irakaslea izan zelako orain urte batzuk eta, gainera, lotura oso estuak gorde dituelako sail horrekin). Aipatu nahiko nu-

keen beste kontu bat Ipar Euskal Herriko irakaslerik ez agertzearena izango litzateke; puntu honetan beherago sakontzen saiatuko naiz.

Lanaren helburua Euskal Herriko historia orokor bat eraikitzea da, hots, gizakien historiaren garai guztiak barneratuko lituzkeena (Historiaurre urrutetik gaurdaino) eta Euskal Herriko sei-zazpi lurraldeen gora-beherez arduratuko litzatekeena. Esan bezala, lana lau bloke nagusitan banatua dago: Historiaurrea eta Antzinateari dagokiona (80 orrialde), Erdi Aroari dagokiona (92 orr.), Aro Berriari dagokiona (84 orr.) eta Egungo Aroari dagokiona (146 orr.): beraz, beste historia orokorreko lan askotan bezala, gure gertakizun garaikideek leku gehiago izatearen arau ez idatzia betetzen da. Lehenengo blokeak hamabi gai ukitzen ditu, gehienbat kronologikoki antolatzen direlarik. Historiaurreari dagokionez, sarrera historiografiko-metodologiko baten ostean, bost atal agertzen zaizkigu; orohar, azpibloke honen epealdia Kristo aurreko (K.a.) 250.000 urtetik K.a. III. mendea arte luzatzen da, gutxi gora-behera. Bloke honetan azaltzen zaizkigu orobat konbentzionalki Antzin Aroa deitu ohi den garaia buruzko atalak, K.a. III. mendetik Kristo ondorengo (K.o.) IX. mendea arte doan epealdiaz hitz egiten digutenak, gaika antolatuta, orokorrean: erromatarkuntza garaiko gertakizun militar eta administratiboak, ekonomia, gizartea, hizkuntzari buruzko hipotesiak, erlijioa, arkeologia... Erdi Aroko blokeak (K.o. VIII. mendetik XV.era luzatzen dena) bestelako barne-antolaketa bat du: gaikako eskema nahikoa materialistazalea oinarri bezala hartuz (lurralde antolamendua lehenengo, ekonomi egitura jarraian, gizarte-gaiak ondoren, politika- eta administralgo-mailarekin bukatzeko), beronen barnean antola-

keta kronologikoa nagusitzen da, nahiz eta kasu batzuetan hemen are gaiaren araberakoa edo herrialde-multzoen araberakoa (Nafarroa, Araba-Bizkaia-Gipuzkoa, eta Iparraldea) aurki ditza-kegun. Aro Berriko blokeak (XVI-XVIII. mendeak) atal gutxiago ditu eta, barne-antolaketaren aldetik, Erdi Aroko blokearen eskemaren ildoak jarraitzen saiatzen bada ere, oinarrizko haria tematikoa da, eta agian nahasixeagoa suertatzen da: lurralde antolakuntza eta demografia, azpiegitura ekonomiko-koa, erakundeak, politika, gizartea, kultura... Azkenik, irizpide kronologikoa nagusi da Egungo Aroko kapituluetan, nahiz eta zantzu tematikoak ere ager- tzen zaizkigun: adibidez, Ipar Euskal Herriari edo trenbideak eta Kontzertu Ekonomikoei buruzkoak.

Liburu honek badu paralelotasunik duela urte gutxi J. Agirreazkuenagak zuzenduriko *Gran atlas histórico del mundo vasco* delakoarekin: egitura eta banaketa antzekoak ditu, eta egile batzuk errepikatzen dira. Hala ere, desberdintasunak nabarmenak dira: zer esanik ez, azken horrek atlas itxura handiagoa du (mapa eta grafiko gehiagok eta handiagok hornituta dago eta, beraz, testuak laburragoak dira), gaur egungo historiari garrantzia handiagoa ematen dio, eta obraren aniztasuna, orohar, zabalagoa da (bai egileen jatorriari bai gaien dagokienez)<sup>5</sup>.

Ondorio orokor gisa aipa daiteke irizpide bi erabili direla, kronologikoa eta tematikoa, bata bestearekin konbinatuz, nahiz eta, finean irizpide kronologikoa nagusi izan. Baina irizpide tematikoa erabili da, batez ere, analisisa lurraldeka antolatzeko (Nafarroa, Ipar

Euskal Herria, egungo EAE, funtsean Erdi Aroaren atalean): badirudi zailtasun handiak daudela Euskal Herri oso-ko historia hari kronologiko/narratibo bakar baten arabera antolatzeko eta, beraz, gai zehatzak jorratzera jotzen dela; baina, batzuetan, gai horien atzean lurraldearen irizpidearen arabera banaketa dago, edo inpresio hori jasotzen da, behintzat. Baina puntu honetaz beherago mintzatuko naiz xeheki, lurraldeen arteko desorekez jardutean.

## II.

Liburuaren edukia laburtu ondoren, goazen beronen analisisan sakontzen hastera. Komentatu behar den lehenengo alderdia, ezbairik gabe, hizkuntzarena da. Esan bezala, euskaraz argitaratutako lana dugu *Euskal Herriaren Historia* hau, eta hasieran honek zelako garrantzia duen azpimarratzen nuen, maila berbereko euskarazko lan- en urritasunaren testuinguruan. Euskal irakurlearentzat eta, batez ere, historia- zalearentzat, ordea, pozak ezin du erabatekoa izan, lana ez delako euskaraz idatzi. Izan ere, egile-zerrendan azaltzen diren gehienak (berrogeita bat horietatik hogeita zortzi) ez dira euskaldun osoak (zentzu soziolinguistikoan) eta, beraz, ezin izango zuten halako lanik euskaraz idatzi; baina, gainera, euskaldun osoak direnek (gainontze-koek) euren testuak gaztelaniaz pres- tatu dituzte, eta gero Lur Entziklope- diak ipinitako itzultzaile talde batek euskaratu ditu (artikulu guztiekin hala jokatu da, batekin ezik: K. Larrañagaren “Gogo moldeak eta bereziki erlijiozko sentimenarenak Antzin Aroan” artiku- luaren azpian ohar bat aurkitzen dugu,

5. El Mundo del País Vasco, *Gran atlas histórico del mundo vasco* (Bilbo, 1994). Lur Argitaletxeak berak lan honen berrargitalpen bat egin zuen: J. Agirreazkuenaga (zuz.), *Gran atlas histórico de Euskal Herria* (Bilbo, 1995), eta, ondoren, euskararako itzulpena, *Euskal Herriko atlas historikoa* (Bilbo, 1997), Lur Entziklopedia Tematikoaren atal gisa hain zuzen ere.

zeinak jakinarazten baitigun «Egileak berak euskaratua» dela). Honek guztiak arazo asko, zalantza batzuk eta baita etsipenerako motiborik mahairatzen dituela iruditzen zait.

Alde batetik, euskaraz argitaratzeko helburuarekin planteiatzen den obra baterako gaztelania oinarritzat hartzea kontrazentzu handia iruditzen zaidalako, garai hauetan behintzat. Gaur egun badagoelako maila horretako lanik euskaraz zuzenean idatz dezakeen jenderik, EHU<sup>n</sup>, eta baita EHU<sup>tik</sup> kanpo ere; bereziki EHU aipatzen dut bertan, gutxienez, euskaraz ikasten eta irakasten den Historia karrera bat dagoelako, eta, beraz, orohar hizkuntzarekin nahikoa aritua izan beharko lukeen irakasleria bat trebatu delako. Baina ez genituzke ahaztu behar beste fakultate eta unibertsitateetan ari diren irakasle euskaldunak ere (bai Euskal Autonomi Erkidegoan —EAE—, bai Nafarroan, baita Iparraldean ere) eta, noski, Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) ia hiru hamarkadatan zehar aurrera eramandako lana. Eta hau guztia, soilik unibertsitate-mundura mugatzen bagara, jadanik aipatu dugun lan honen izpirituari jarraituz. Alde honetatik, ia-ia zarrastalkertizat jo daiteke pertsona horiek guztiek (deituak izan ez direnek, baina baita proiektuan parte hartuta erredakzio zuzenean euskara erabili ez dutenek ere) historia zientzia eta euskara uztartzeko egin duten lan guztia (hiztegi eta espresio bide tekniko mailan, esaterako) erabili ez izana. Honekin ez dut esan nahi euskaraz erredaktaturiko lan bat, eduki aldetik, hobea izango zatekeenik (lan honetan azaltzen diren zenbait aditu puntakoak direla eta kalitate handiko lanak idatzi dituztela esan behar da; hala ere, ez

dut uste historialari euskaldunek euskaraz idatzitako halako liburuki bat txaragoa izango zenik ere, esku artean duguna bezala gora-beherak izango lituzkeelarik), baina bai, hiztegi historiografikoaren erabilerari dagokionez, historia euskaraz lantzen dutenen eguneroko errealitate eta arazoekiko gertutasun handiagoa edukiko lukeela. Hizkuntzari buruz hobea izango lituztekeela, alegia. Eta pentsatzen dut Lur bezalako argitaletxe batentzat arazo hau ez dela ahuntzaren gauerdiko ezstula.

Honekin ez dut esan nahi itzulpena gaizki dagoenik. Beherago aipatuko ditudan itzulpen-akats batzuk gora-behera, itzulpen-lan nahikoa onargarri baten aurrean gaudela esan beharra dago; Ibon Sarasola euskaltzainaren hiztegi eta gomendioak hertsiki jarraitzen ditu, gehienetan irakurterraza suertatzen da eta, printzipioz, ez dirudi horregatik zehaztasun gehiegi galtzen duenik. Baina, nolabait esateko, halako iruzur-lurrina dario, jatorriz gaztelaniaz idatzitako lan bat euskarazkoa bezala aurkezten zaigulako, gaztelaniazkoaren erreferentziarik ez dugula. Alde honetatik zintzoagoa zatekeen aurretik (edo, gehienez jota,aldi berean) gaztelaniazko jatorrizko bertsioa argitaratu izan balitz. Are gehiago, Lur-ek gaztelaniazko bertsio hori noizbait argitaratzeko asmoa duela jakinda...

Itzulpenaren aukera honek arriskuak ditu. Besteak beste, eta praktikasunera joz, egile gehienek ezin izan dutela bere testua taxuz berrikusi, euskararik ulertzen ez dutelako; eta honek akatsei atea iriki ahal izan die<sup>6</sup>. Eta susma daiteke, halaber, berrikusi ahal izan zuten idazle euskaldunek ere

---

6. Bestalde, egileek, salbuespenak salbuespen, ezin izan dute eman euskaraz argitaraturiko bibliografiaren berri, eta beronen falta nabaria da.

topo egin dutela argitalpen prozesuak berak itzultzaileei eskaini izan dien nagusigoarekin. Zuzenean euskaraz idatzitako halako lan bat ere akatsez eta kontraesan bezalako ager daiteke, baldin eta bakoitzari nahi duena egiten utziko balitz. Beraz, argi geratzen da hiztegi eta esapide mailako koordinazio gutxieneko baten beharra, egileen arteko bilera eta kontsentsuen bidez, esaterako; hau guztiz beharrezkoa da eraikuntzan dagoen gure euskarazko historiografian, hiztegi teknikoak ez baitago, inondik ere, guztiz finkatua. Baina gaztelaniaz idatzirikoa lan batean, euskararen egokitzapen-lana itzultzaileen esku geratzen da, eta honek arazo erantsiak ekar ditzake. Hasteko, ez dakigu itzultzaileen artean historialaririk dagoen eta, diziplina honetako lizentziadunik egonez gero, historialaritzan euskaraz ari direnik, edo euskaraz argitaratzen diren lanen jarrapena egin ohi duten. Kontu inportante honetaz liburuak ez digu inongo informaziorik eskaintzen. Eta argi esan behar da akatsen iturburu bihurtu daitezkeela.

Larrienak anakronismoak eta itzulpenaren hanka-sartzeak izan daitezke. Batzuk aipatzearen<sup>7</sup>, “foroa”-ri (erromatar garaiko plaza modukoa), «foru» (berez, Erdi Arotik ezagutzen diren pribilegio, ohitura zahar eta legeekin zerikusia duena) deitzen zaio (65. orr.); «Britainia» (93. orr.), “Britainia”ren ordeztu erabiltzen da (bi eskualde ezberdin dira); Erdi Aroko arrantzale kofradiak, dirudienek, «erruki eta *maitasun*» kontuz arduratzen ziren (138. orr.; aurretik kofradien *elkartasun* funtzioez hitz egin digu); «Mesetako Kontseilua» (145. orr.) eta esan beharko lukeen “*Mesta*-ren Kontseilua”

ez dira gauza berbera; “crisis de los ingresos señoriales”-edo itzultzeko «jaunen diru sarreren krisia» erabiltzen da (163. orr.), “ingresos” horiek mota askotakoak zirela eta, beraz, ez zirela dirutan bakarrik jasotzen ahaztuz; Erdi Aroko burdinoletarako «harrikatza» egiten zela bezalako astakeria irakurtzen dugu (168. orr.); Gipuzkoako Aro Berriko erakundeez ari zaigunean, «Errejidorea» aipatzen zaigu (219. orr.), baina Koroaren ordezkariaren izendapenak “Korrejidore” izan beharko luke; Bordelekoa ez zen «Legebiltzar» bat (225. orr.), “Parlamentu” bat baizik (epaitegi funtzioak zituen); ez dirudi «gizarte aseguru» bezalako esapideak (232, 238. orr.) egokienak direnik Aro Berriko errealitatea islatzeko; eskulangintza “maisuari” «irakasle» deitzen zaio (242. orr.); gerra ez da «aitortzen» (263. orr.), “deklaratzen” baizik; «Lomako Ituna» (339. orr.) “Lomarena” izan beharko luke; “Naviera Aznar” itsasoko garraio-enpresa bat zen, ez «ontziola» bat (364. orr.); Gerra Zibilaren garaian ez zen sekulan eratu «Nafarroako *Gerra Karlistako* Junta Zentral» bat (391, 394. orr.), —agian— “Nafarroako Gerrarako Junta Zentral Karlista” bat baizik. Gainera, behin baino gehiagotan azienda / hazienda nahasmena agertzen da, agian azken horri besterik gabe “ogasun” deituz konpon daitezkeena<sup>8</sup>. Bestalde, erdarakadak, zalantzagarriagoak eta urriagoak badira ere, agertzen dira noizean behin. Adibidez, gure historiaurreko arbasoek kontsumitzen bide zuten *Ensis* generoko moluskuari «labana» deitzen zaio (37. orr.) eta ez “datil”, *Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoak* adierazten duen bezala; «protoeuskara» ordeztu (73. orr.) “antzineuskara” hobestutako ohi da; «Santa Cruz» (174. orr.)

7. Letra etzanak, daudenean, nireak izan ohi dira.

8. Horrela «Azienda Ministro» bezalako ateraldi irigarriak baztertu liteke (385. orr.).

“Kanpezu” izan beharko litzateke; «*La Riqueza de las Naciones*» bezalako izenburuak (205. orr.) euskaraz edo jatorrizko hizkuntzan eman beharko lirateke; «burdinola handiak» bezalako esapideak (208. orr.) gaztelaniazko “*ferrerías mayores*”-en itzulpen zuzenak dira, euskaraz jatorrizko izendapenak daudelarik (“zeharrolak”); ez dirudi “*problemas jurisdiccionales*” zuzenean «barruti arazoak» bezala itzul daitekeenik (246. orr.); nahikoa argiak dira «jornal» (338. orr.), «erreibindikazio», «organizazio» (339, 398. orr.), eta «jestioa» - «jestionatu» (65, 412. orr.); «kontsumo nabarmena» (367. orr.) eta “*consumo ostentoso*” ez dirudi gauza berbera direnik. Gainera, batzuetan izen berezi batzuk bi eratara ematen dira (“gaztelaniazko” eta euskarazko formetan), adibidez: «Isturiz» / «Isturitz», «Beleia» / «Veleia», «Arakil Huarte» / «Huarte Arakil», «Aiala» / «Ayala», «Gonzalo» / «Gontzalo» edo «Mutriku» / «Motriko».

Beste itzulpen batzuk, batez ere gure diziplinaren “hiztegi teknikoarekin” zerikusia izango luketenak, eztabaidagarriagoak dira, noski, askotan gu irakasle eta ikertzaileon aukera eta gus-tuekin zerikusi handiagoa dutelako, eta, kasu honetan, itzultzailearen haututzat har daitezke. Kontua da esapide horien erabilpena eta zabalkuntza historialariok egin ohi dugula (edo hala izan beharko litzateke, behintzat) eta, beraz, bestelako itzulpen eta erabilpe- nek nahasmena sor dezaketela irakur- leen artean, batez ere historia euska- raz ikasten eta irakasten ari direnen artean. Zolu hau labainkorra dela aitort- zen badut ere (euskal historialarion artean ez garelako oraindik gauza as- kotan ados jarri), nire ustez esangura- tsuak izan daitezkeen zenbait adibide jartzen saiatuko naiz (ez naiz luzatuko, azalpen honi kutsu nominalistegia ez

ematearren: badago, liburu honi buruz, bestelako konturik). Hasteko, eta arlo honetako hainbat terminologia-akatsen artean, esan behar dugu historiaurreko irakasle eta ikertzaileek ez dituztela era- biltzen, Lur-ek bezala, «Behe Paleolitos», «Erdi Paleolitos», «Goi Paleoli- tos», «Neolitos» eta antzeko izendape- nak, baizik eta “Behe Paleolitoa”, “Paleolito Ertaina”, “Goi Paleolitoa” eta “Neolitoa”. Bestalde, Antzin Aroan sar- tuz, ez zait iruditzen latineko *cliens* kontzeptua «bezero» eta «bezeria» itzulpenez ordezkia daitekeenik; «neka- zari kapitalismoa» (60. orr.), erromatar garaietan erabiltzeko termino nahikoa eztabaidagarria izateaz gain, “nekaza- ritza-kapitalismo”-edo izan beharko litzateke. Erdi Aroan gauza gehiago aipa daitezke. Alde batetik, egileek euren testuetan ziur aski desberdint- zen dute “feria” (urtean behin edo bitan antolatu ohi zen nazioarteko edo eskualdearteko salerosketa gunea) eta “mercado” (astean behin antolatzen zena, hirigunearen eta landagunearen arteko harreman ekonomikoetarako) artean, baina testuak ez du halakorik egiten, eguneroko euskaran (ikus Ibon Sarasolaren *Euskal Hiztegia*) ia ez delako desberdintzen «azoka», «feria» eta «merkatu» artean; ni, pertsonalki, gaztelania eta frantsesarekiko mime- tismoz, «feria» eta «merkatu» arteko desberdintze historiografikoa eustea- ren aldekoa naiz. Bestelakoa da Guy Bois historialariaren “*Descenso de la tasa de exacción señorial*” kontzeptua- ren itzulpenaren inguruko auzia: Lur- ek «Jaunentzako ordain derrigortuaren tasaren jaitsiera» esapideaz itzultzen du; ilunegia iruditzen zait eta, edozein kasutan, ez du kontzeptuaren indarra islatzen; horren ordezt, “Jaurgo ate- raketa-tasaren jaitsiera” edo “Jaurgo ordainarazpen-tasaren jaitsiera” be- zalakoak proposatuko nituzke. Zergei buruz ari garenean, bestalde, agian

argiagoa da “servicio extraordinario” “ez-ohiko zerbitzu” bezala itzultzea, eta ez orokorregia dirudien «laguntza berezi» bezala (184. orr.). Berdin deritzot “producción en masa” esateko: Entziklopedia honetan «multzokako produkzioa» erabiltzen da (363. orr.), baina argiagoa iruditzen zait “masa-produkzioa” edo “masa-ekoizpena” (gainera, testuan «masa gizartea» behin baino gehiagotan azaltzen da). Bestalde, eta aurrekoarekin lotuta, itzulpenak sortarazten dituen zalantzen artean, gauza berbera atal ezberdinetan (eta batzuetan, atal berean) forma ezberdinez izendatzeko joera nahas-tailea dago: erromatar iturrietan *berones* bezala izendatzen diren populuei «beronak», «beroiak» eta «beronesak» deitzen zaie; berdin gertatzen da *cantabri* delakoekin, hemen «kantauriarak» eta «kantabriarrak» deitzen baitzaie; “Bajo Imperio”, «Behe Inperio» eta «Inperio Berant» bezala itzultzen da; muturreko adibidea dugu “Antigüedad Tardía” epealdiaren itzulpena, sei forma ezberdinez agertzen baitzaigu testuan zehar<sup>9</sup>; “villa”-rako (Erdi Arotik aurrera) «hiribildu» eta «herribildu» erabiltzen da, irizpide garbirik gabe; Aro Berriko ataletan «Errejimen Zaharra» erabili ohi den bitartean, Egungoetan «Antzinako Errejimenaz» hitz egiten dute (nire ustez azken hau hobestu beharko litzatekeelarik); “Provincias Exentas”, «Salbuetsitako Probintziak» edo «zerga salbuespena zuten lurraldeak» perifrasiarekin itzultzen da; “arancel”, «muga zerga» edo «zer-

ga muga» bezala (nik neuk “mugasari” edo “muga-sari” hobetsiko nuke); 1959an Espainia mailan abian jarri zen “Plan de Estabilización” delakoa ere bi eratan azaltzen zaigu: «Egonkortasun Plana» (408. orr.) eta «Egonkortasunerako Plangintza» (418. orr.), baina niretzat “Egonkortze Planak” hobeto islatzen du gaztelaniazko esapidearen zentzua.

Adibide horiekin ez dut aditzera eman nahi, berriz diot, itzulpena gaizki dagoenik; izan ere, egokitzat jotzen ditudan terminoak ugariagoak dira gaizki daudela iruditzen zaizkidanak baino<sup>10</sup>, eta, ziurraski, liburu baliagarria izango zaigu euskarazko historiako “hiztegi” baten eraikuntzaren lanean dihardugunoi. Baina irakurlea halako itzulpenen zenbait arriskuez ohartarazi nahiko nuke. Alde batetik, eta aipatu bezala, gaian adituak ez diren itzultzaileez baliatzearen arriskuaz (hau sahiesteko aholkulari adituez baliatu beharko ginateteke). Eta, beste aldetik, itzultzaile asko erabiltzearen arriskuez: honetarako antidoto bakarra koordinazio eta gainbegiratze dosi handiak dira. Beraz, lana txarra ez bada ere, ez dut uste Lur Entziklopediak helburu hauek gutziz bete dituenik<sup>11</sup>.

### III.

Itzulpenaren argi-ilunez hitz egin ondoren, goazen liburuaren mamia aztertzera. Sarreratik hasita, nahikoa inpor-

9. «Antzinate Beranta», «Azken Antzin Aroa», «Beranduko Antzinatea», «Antzinate Berandu», «Antzinate Berantiarra» eta «Antzinate Berankorra».

10. Izan ere, adibidez, oraindik gutziz konbentzitzen ez banau ere, testuan dagoen «Salbuetsitako Probintziak» [=“Provincias Exentas”], erabili ohi zen “Probintzia Askeak” baino egokiagoa iruditzen zait. «Foru Opari» ere [=“Donativo Foral”] polita iruditzen zait, idatzi ohi dudana “Foru Dohain” gehiago maite badut ere.

11. Beste aldetik, Lur argitaletxeari adierazi nahi nioke lan hau egiten ari nintzela liburuan zehar aurkitu ditudan hanka sartze, (ustezko) itzulpen erratu, akats tipografiko eta estilo huts egiteak jasotzen saiatu naizela, eta hamabost orrialdetan bildu ditudala. Lur-ek bigarren argitalpen bat egiteko asmorik balu, prest egongo nintzateke aurkitu ditudanak beroni eskaintzeko, zuzendu ahal izateko alegia.

tanteak diren bi gauza esaten zaizkigu, *dibulgazio garaikoa* kontsidera dezakegun lan honi buruz: historia kontingentziaren kumea dela (ez dago ezer alde aurretik idatzita, ez dago «historia bidezkorik») eta Euskal Herria eta bere historia ez direla «beste edozein giza komunitate edo iraganetik oso ezberdinak» (15. orr.); nahikoa zuzenak iruditzen zaizkidan bi ideia. Hala ere, nire ustez, beste bi dira gehien azpimarratzen diren kontuak. Batetik, historialari profesionalen (hots, unibertsitarioen) aldarrikapenarena —aipatu dugu, jadanik—; A. Riveraren hitzetan:

Honako hau egileen profesionaltasunetik egindako historia dela esateak, hantustea edo, aurrez idatzitako beste zenbait obra gutxiesteko modu bat iduri lezake. Ez litzateke horrelakorik nahi, baina halaxe da: historia honen oinarritzko ezaugarria da unibertsitateko profesionalek idatzia dela. Berrogei baino gehiago izan dira, nor bere irizpide, metodologia, idazkera [?], eta —zergatik ez?—, sinismen eta aurreiritziekin. Profesionaltasun frogatuak ez du produktua —zaticako edo osoko— ideologia saihesten. Bermatzen duen bakarra idatzitakoaren eta ziur gertatu zenaren (dakigunaren) arteko erlazio estua da, eta horrekin batera, misliotarako edo inor salbatzeko intentzio falta. Izan ere, ez dira alferrik historialariak historiaren mirarizko bertuteetan gutxien sinesten dutenak (15-16. orr. —taket arteko galdera ikurra neurea da—).

Unibertsitatetik kanpo «idatzitakoaren eta ziur gertatu zenaren arteko erlazio estua» lantzen dakien jenderik ez dagoela zalantzan jartzen dugula alde batera utzita, goazen bigarren ideiarekin, aurrekoarekin oso lotua: liburu honek historiografia militantearen (hots, abertzalearen) aurka duen jarrera (militantea). Historiografia abertzalea zuzenean aipatzen ez bada ere (eta are gutxiago, ohikoa den bezala, ko-

rronte horri lot dakioken lanen izenbururik) eta, beraz (eta honetan oso ados egon bagaitezke ere), edozein historiografia nazionalistaren aurkako aldarrikapentzat hartu baldin badezakegu ere, Riveraren hitzak nahikoa argiak dira:

...gure herria eta gure historia, azken hau aurrenekoaren morrontzan jartzen saiatu izan den esentzialismoaren erasoan daude aspalditik, horretatik eratortzen den historia faltsuarekin gure patu kolektiboa edo gure buruak ikusteko modua hobetuko balira bezala (...). Historiaren eta historialarien eginkizunez osatzen diren horrelako eta beste era askotako ideia faltsuen aurka borrokatu behar izaten dugu goizero. Ikus ditzagun horietako zenbait. Aurrenekoa, onak eta gaiztoak bereizten dituen ikuspegia. Lehenengoak izango lirateke herriaren esentzia, arrazaren harrotasuna ordezkatzeko luketenak, kanpokoari oldartzen zaizkionak. (...) Beste zenbaiten ustez, hemengoan eta hangoan arteko borrokaren laburpena da historia. Izan dira aldiak egiaz halaxe izan direnak, baina, aldi horietan, herri barruan ere izan da borroka, joera batekoen eta bestekeo artean, eta jarrera hoberena, aurrerakoiena, zuzenena, ez dauka zertan izanik kanpokoari aurkakotasun handiena erakusten diona (15. orr.).

Jakina, ez da zaila era horretako baieztapen orokorrekin ados egotea, alegia, helburu mesianiko batzuk betetze aldera gure herriaren historia faltsutzen eta manipulatzeko dutenek ez dute, garbi dago, ofiziodun historialari baten begirunerik merezi. Arazoa da era horretako mesianismo salaketa lauso, orokor eta mugagabeek ere ez dutela, nire ustean, aparteko begirunerik merezi. Adibidez, esan al daiteke nor ari den, azken berrogeita hamar urteetako euskal historiografian “arrazaren harrotasuna” goratzen? Benetako salaketa al da, ala historiografia (anti)nazionalistaren topiko orokor baten aurrean gaude? Komeniko litzate-



ke zehaztea, aurrerantzean betiko arinkeriak ez errepikatzearren.

Edozein kasutan, eta argitaletxearen aginduz, liburua euskal abertzale-tasunak aldarrikatzen dituen sei edo zazpi herrialde klasikoen historia kontatzeari lotzen zaio, nahiz eta, Riverak esaten digun bezala, egileek «Euskal Herria kontzeptu kulturala» bezala hartzen duten, eta estatu ezberdinen artean banatuta egotearen zirkunstantziak behartu egiten ditu behin baino gehiagotan «bi lurraldeak banaka hartzera». Hala ere, gehitzen du, «uneoro saiatu izan gara mugaren alde bietako ikuspegiak ematen» (16. orr.). Hau bereziki garrantzitsua da, planteamendu hauek ez baitira ohikoak euskal historiaren sintesietan, ez eta Euskal Herri osoa hartzeko helburu garbia bide dutenetan ere; gogora dezagun, esaterako, M. Aizpuruk J. M. Lorenzo Espinosak Txalaparta argitaletxe esanguratsurako idatzitako *Historia de Euskal Herria*-ren hirugarren liburukiari eginiko kritika: «Euskal Herria Bilbok eta, batzuetan, Ezkerraldeak osatzen dute. Beste herrialdeak osagarriak dira eta inoiz ez dute kolokan jartzen eredu orokorra. Euskaldunok euskaraz egiten dugula ia-ia asmatu beharreko zerbait da...»<sup>12</sup>. Lur-en *Euskal Herriaren Historia* hau pekatu horretatik libre dagoela ematen du, printzipioz behintzat. Baina, tamalez, ez da guztiz horrela eta, berriro ere, liburuak ez gaitu asebetarik uzten, alde honetatik bederen. Gehienbat Ipar Euskal Herriari eta, gutxiago baina,

Nafarroari dagozkie hutsunerik eta desorekarik nabarmenenak, ohikoa den bezala. Bibliografia begiratzea baino ez dago: Iparraldean edo Frantzian argitaratutako lanen urritasuna nabarmena da.

Egia esateko, Historiaurre eta Antzin Aroko ataletan oreka bat mantentzen da, orokorrean<sup>13</sup>, baina oreka hori hausten doa historian aurrera goazen heinean. Erdi Aroko ataletan Nafarroaren garrantzia eta rola, ezinbestez, nahikoa ondo islatuta dago, eta Ipar Euskal Herriarekin ahaleginen bat egiten dela soma daiteke, erabateko lorpenik aldarrikatzea zaila bada ere; izan ere, gai batzuetan beste herrialdeekin batera aztertzen bada ere, gai konkretuetan (ikus, bestela, aurkibidea), bloke homogeen eta banatutzat hartzen da Iparraldea, gaur egungo irizpideekin alegia, Nafarroa Beharren kasua agian Nafarroako erresumaren barnean hobeto koka daitekeela ahaztuz. Egia da Iparraldeko Erdi Aroko historiari buruzko ikerketa eta argitalpenak ez direla ugariak —besteak beste, Lapurdi eta Zuberoa luzaroan Ingalaterrako erresumaren menpean egoteak zaildu egin ditu ikerkuntza lanak, iturri eta material asko Britainia Handiko artxibategietan omen dagoelako, haraino joango diren euskal historialarien zain—, baina Baiona bezalako hiri bati buruzko informazioa faltan somatzen da, adibidez, ia-ia soilik Nafarroa Garaikoetan zentratzen den E. Garcíaren “Hirietako gizartea (XIV-XV. mendeak)” atalean, eta, oro-

12. M. Aizpuru, “Liburu aipamena”, *Uztaro*, 19. zbk. (1996), 80 orr.

13. Salbuespen batzuekin: adibidez, C. González-en “Gizarte antolamendua” atalak —zeinetan erromatarkuntza garaiko herrien gizarte-egiturez mintzatzen baitzaigun— gehienbat Penintsula iparraldeko herriak ditu hizpide; edozein kasutan, esanguratsua da kapitulua irudikatzen erabiltzen den mapa, inguruko artikuluetako zabalagoetatik oso ezberdina: *Iberiarren penintsula, Estrabon greziararen arabera* (61. orr.). Kontuan izanik euskarak Akitaniako hizkuntza aurrerromatarrekin duen ahaidego ezaguna (ikus gero aipatzen dugun J. Gorrochateguiaren atala), eta, ondorioz, Akitania eta egungo Euskal Herriko lurraldeen arteko lotura, bereziki aipagarria da ikuspegi ia soilik hegopirinearra ematea.

har, ekonomia edo gizarteari buruzkoetan; gauza berbera esan dezakegu iparraldeko elizaren egitura eta egoerari buruz, zeinaz aipu bakar bat egiten den “Erlijioa, heterodoxia eta gutxiengoak Euskal Herriko komunitateetan (XIV-XV. mendeak)” kapituluan.

Desoreka hauek larriagoak dira, ordea, Aro Berriko eta Garaikideko ataletan. Lehenengoarekin hasita, bere atal berezia duenez<sup>14</sup>, Hegoaldeko gainontzeko probintzien historiak ez du eklipsatzen Nafarroa Garaikoa, baina, esaterako, harrigarria da Nafarroa Beherari buruzko antzekorik ez aurkitzea, XVI. mendeko Frantziako historia politikoa herrialde horrek jokatu zuen paper garrantzitsua kontuan hartzen badugu bederen. Erakundeak, ekonomia eta gizarte-gatazkak ukitzen dituzten ataletan Ipar Euskal Herria nahikoa modu duinean agertzen bada ere, ezin da gauza bera esan, adibidez, erlijioari buruz: protestantismoaren auzia ez da aipatu ere egiten, nahiz eta “Erlijioa, inkisizioa eta sorginkeria” bezalako izenburu prometigarria duen atala egon (244-254. orr.). Bertan Espainiako Inkisizioak Hego Euskal Herrian egindako ekintzez hitz egiten zaigu, soilik, eta protestanteak agertzen direnean, Bilbo edo Donostiako portuetako urriak dira (berdin gertatzen da sorginekin). Eta hemen ez dago aitzakiarik: Ipar Euskal Herriko protestantismoari buruz frantsesez edo euskaraz idatzitako guztiaz aparte, egileak bazuen eskura, besterik ez bada, gaztelania txukun-txukunean argitaratutako J. M. Olai-zolaren sintesi ezaguna<sup>15</sup>.

Egungo Aroan gauzak hobeto daudela dirudi, azaletik ikusita behintzat, Ipar Euskal Herriari buruzko bi atal

espezifiko daudelako. Irizpidea argia da, eta bloke honen zuzendaria den A. Riverak hala ohartarazten zigun sarrean ere: Espainiako eta Frantziako estatu-nazioen sendotze prozesuaren ondorioz, eraginkorragoa dirudi Ipar eta Hego Euskal Herriko herrialdeen trataera banatu bat. Erabat ados nago erabaki honekin. Banaketa, ordea, ez zait hain zilegizkoa iruditzen: Ipar Euskal Herriaz hitz egiten duten atalak bi dira, esan bezala; Hegoaldea jorrazten dutenak, ordea, hamabost (aldea nabarmena da, orobat, kontuak orrialdetan egiten baditugu: 15 eta 131, hurrenez hurren). Esan bezala, kronologikoki antolaturiko Egungo Aroko bloke honetan, irizpide nagusia Espainiako eta Hegoaldeko historia garaikidearen aldiak dira: Antzinako Errejimenaren Krisia, Errestaurazioa, Primo de Riveraren Diktadura, II. Errepublikak, Frankismoa; Ipar Euskal Herriaren historia, ordea, bi bloke nahikoa zabarretan antolatzen da: “Ipar Euskal Herria XIX. mendean”, eta “Iparraldea XX. mendean”. *Ça y est*. Ipar Euskal Herriak ez al du, beraz, kronologia propio bat izateko eskubide xumea ere? Nahiz eta, normala eta halabeharrezkoa dirudien bezala, Frantziako historiaren aldietan oinarriturik egon? Ildo honetatik, harrigarria dirudi, gainera, Gaur Egungo Aroko bloke honen abiapuntua: badakit historialariek erabili ohi ditugun kronologia eta epealdiak oso arbitrarioak —eta, batzuetan, engainagarriak— izaten direla, baina gaztetatik aro hori (Estatu Batuetako eta) Frantziako Iraultzarekin batera hasten zela irakatsi ziguten, eta, are gehiago, hasiera-data bat ere eskaintzen ziguten: 1789. Iraultza honek Ipar Euskal Herriari izandako eraginez ez dugu berririk, ordea, bloke honetako hirugarren

14. I. Reguera, “Nafarroako erreinuaren gorabeherak Aro Berrian” (226-231. orr.).

15. *Historia del Protestantismo en el País Vasco. El Reino de Navarra en la encrucijada de su historia* (Iruña, 1993).

atala arte (311-318. orr.). Aurreko bi ataletan, ordea, Hegoaldean XVIII. mendearen bukaeratik 1876 arteko gertakizunak kontatzen zaizkigu, nahikoa modu xehe eta egokian (282-310. orr.). Paradoxikoa da: J. M. Portillok bere lehen atalean mugaz beste aldetik etorritako ideia iraultzaileek Hego Euskal Herrian izandako eraginaz hitz egiten digu, baina ideia horiek Iparraldean izandako lehenagoko inpaktoaz (eta garapenez) ez dakigu oraindik ezer. Pazientzia: C. Rubiok geroago hitz egingo digu horretaz, 312 eta 313. orrialdeetan, hain zuzen ere. Bestalde, Nafarroa eta Arabari buruzko aipamenak ere nabarmenki gutxitzen dira, Egungo Aroko atal batzuetan, Gipuzkoa eta batez ere Bizkaia azalpenaren ardatz bihurtzen direlarik. Hau bereziki deigarria da garapen ekonomiko eta industrialari buruzko kapituluetan: M. González Portillak ez digu ezer aipatzen XIX. mendeko Nafarroa eta Arabako ekonomiez bere “Kapitalismoa eta lehen industrializazioa” lanean (344-352. orr.); eskerrak entziklopediaren zuzendariak berak atal hori osatzen duen gehigarri labur bat eransten dion: “Barnealdeko probintzietako ekonomia: Araba eta Nafarroa” (353-356. orr.). Gauza larriagoa bihurtzen da XX. mendeko bigarren erdialdeko ekonomiaren bilakaera ukitzen denean: M. González Portilla beraren “Bigarren industrializazioa” atal prometigarriak (406-417. orr.) ez digu tutik ere esaten garaiko gertakizun erabakiorrak izan ziren Araba eta Nafarroako industrializazio prozesuez, eta ia-ia Bilbo inguruan gertatutako arduratzen da soilik. Izan ere, ez du Arrasate eta Deba bailarako mugimendu kooperatiboen gaia aipatu

ere egiten. Berrero ere, hurrengo kapituluak zuzentzen ditu, hein batean, hutsegite horiek: J. P. Fusik 60 eta 70. hamarkadetako aldaketa sozial eta politikoen azalpenari aurrean jartzen dion sarrera ez oso luzean aipatzen ditu, xumeki bada ere, besteak ahazturiko puntuak (418-420. orr.).

Iparraldeko gaira itzuliz, eta lehenago aipatu dudan bezala, hango edo Frantziako historia espezialisten ausentzia nabarmena somatzen da. Eta, egon, badaude mugaz bestaldera Iparraldeko historiaren epealdiak ezagutzen dituzten unibertsitate mailako irakasle eta ikerlariak. Ezin da gauza berbera esan liburu honetan parte hartzen duten egileez. Historiaurre eta Antzin Aroko ataletan hau arazo handia ez bada ere —egileek, garai horretako mugak lausoagoak direlarik, nahikoa ondo ezagutzen dituzte Pirinioen alde bietara gertaturikoak—, latzagoa bihurtzen da hurrengoetan. Erdi Arokoan, besterik ez bada, Iparraldeko kontu gehienez arduratzen den J. A. Fernández de Larreak, Behe Erdi Aroko Nafarroako erresumari buruzko ekonomi eta gizarte-ikerketara garrantzitsuak egin dituelarik, zuzenean ezagutzen du Nafarroa Beherari buruzko hainbat gauza, eta nolabaiteko espezialistatzat har daiteke, nire ustez behintzat. Ipar Euskal Herria aipatzen duten Aro Berriko blokearen egileen artean espezialistarik ez badago ere, kontakizuna Hegoaldeko gertakizunekin batera ematen saiatzen dira eta batzuetan —baina ez guztietan, ikusi dugun bezala— emaitzak ez dira hain kaxkarrak<sup>16</sup>. Egungo Aroan, ordea, Iparraldeko kontakizuna C. Rubioren eskuetan uzten da, guztiz, eta lan

---

16. Ikus, bereziki, A. Bombín-en “Erakundeak” (212-225. orr. —agian eskematikoegia dela leporatu ahal zaio—), eta R. Porres-en “Aginpidea, urrialdia eta zergak: gizarte gatazka” (255-271. orr.).

duina egiten saiatzen dela ametituz<sup>17</sup>, ez dakigu zeintzuk diren enkargu hori beroni emateko kontuan hartu zaizkion merituak, ordu arte Ipar Euskal Herriaren historiari buruz ezer landu ote zuen ez baitakigu<sup>18</sup>.

#### IV.

Aipatu dugu, iruzkin honen hasieran, artikulu askoz osatutako hau bezalako lanek gorabehera handiak dituztela estilo, molde eta kalitate aldetik, baina hala eta guztiz ere saiatuko naiz niregan, irakurle bezala, interes gehiena sortu duten atal batzuk bereizten, eta, aldi berean, lanaren eta bloke handien antolaketari buruzko zehaztasun batzuk eskaintzen, nire indar eta ezagupenen arabera. Esan behar dudan aurreneko gauza da, beraz, lehenengo blokeari eta bere artikuluei buruzko epairik emateko ezgai naizela, eta, bestalde, Erdi Aroko kontuak ezagunagoak egiten bazaizkit ere, ez naizela garai horri buruz aritzeko pertsonarik egokiena; erosoago ibiliko naiz, beraz, Aro Berri eta Garaikideko gaiekin, batez ere ekonomi historiarekin zerikusia dutenekin. Hala ere, lehenengo blokean, A. Saenz de Buruagaren sarrera historiografiko egokiaz aparte (20-22. orr.), J. Gorrochateguiaren lana aipatu nahiko nuke, "Hizkuntzaren egoera Antzin Aroan" (67-72. orr.), oso argigarria ni bezalako le-

goentzat —gure artean hain ohikoak gertatzen diren mistifikazioen aurkako antidoto gisa<sup>19</sup>—, eta baita zuzenean bere arkeologia ikerketetan oinarrituriko A. Azkarateren "Antzin eta Erdi aroen artean" ere (92-99. orr.), puntu batzuetan garai ilun horien azalpe-nerako hipotesi ausartegiak defendatzen dituela iruditzen bazait ere.

Erdi Aroko blokean, uste dut jadanik esan dudala, miresten dut aukeratutako eskema klasiko eta sinplea: oinarri edo egitura ekonomikoa - gizarte-egitura - gainegitura politikoa; ezinbesteko errepikapen batzuk gertatzen badira ere eta —esan bezala— Ipar Euskal Herriko gertakizunak azpirudikatatuak badaude ere, nahikoa kontakizun eraginkor eta osotua egiten zaigu. Atalen bat nabarmentzekotan E. Pastorren "Nekazaritza hazkundera eta biztanle egitura (700-1200)" (115-119. orr.), J. M. Lemaren "Eskulangintza" (139-143. orr.), eta J. A. Fernández de Larrearen "Gizarte feudalaren krisia (1250-1450)" bikaina (162-169. orr.) aipatuko nituzke.

Nahasiagoa eta hutsune handiagoduna iruditu zait Aro Berriko blokea. Bertan artikulu eraginkor eta azpimaragarriak aurki baditzakegu ere (batik bat R. Porresen "Aginpidea, urrialdia eta zergak: gizarte gatazka", 255-271. orr., zeinetan gizarte mailako tirabide

---

17. Akaso bigarren atalari, XX. mendeari dagokionari hain zuzen ere, Iparraldeko abertzale-tasunaren bilakaeraren inguruan "ardaztuegia" dagoela leporatu ahal zaio.

18. Entziklopedia honetarako artikulua idatzi aurretik Hegoaldeko Hiru Probintzietako Antzinako Errejimeneko krisi garaia eta foruzaletasuna jorratzen duten (nahikoa antzeko izenburuko) lanak ezagutzen zitzaizkion: *Revolución y tradición: el País Vasco ante la revolución liberal y la construcción del Estado Español, 1808-1868* (Madril, 1996), eta *Fueros y constitución: la lucha por el control del poder (País Vasco 1808-1868)* (Bilbo, 1997).

19. Ikus, joera azientifiko horren azken gailur bezala, —edozein kasutan historialaria ez den— A. Martínez Lizarduikoaren *Euskal Zibilizazioa (gure herriaren sustraien bila)* eldarniozkoa (Donostia 1998). Aurki liburu honen iruzkina aurkitu ahal izango duzue *Uztaro*-ko orrialdeetan.

eta matxinaden sintesi on bat eskaintzen baitzaigun<sup>20</sup>) ez du, orokorrean, asetzen. Aipatu ditut jadanik garai horretako Ipar Euskal Herriaren historiari buruzko hutsune harrigarri batzuk. Nahasmendu sentsazio horren ikurtzat har dezakegu, esaterako, A. Anguloren “Eskualdeen arteko harremanak eta Euskal Herriko ekonomia esparruaren antolamendua” atala (202-211. orr.). Hasteko, hamar orrialde hauek urriak direla ematen du, ekonomiaren gaiari Erdi Aroko blokeak eskaintzen dizkion hemeretzirekin alderatuz gero, eta Aro Berriko ekonomiaren gorabeheraz informazio gehiago dagoela kontuan harturik. Bestalde, atalari oreka falta zaio, nabarmenki: garaiko ekonomiaren zutabe —Antzinako Errejimeneko ekonomia guztietan bezala— ziren lehenengo arloko jardueri bi orrialde eta erdi eskaintzen zaizkien bitartean<sup>21</sup> (eta artesautzari, hots, batez ere siderurgia tradizionalari, bakar bat), merkataritzarekin eta, batez ere, merkataritza “handiarekin” zerikusia dutenei ia sei eskaintzen zaizkie (honek Euskal Herriko probintzia batzuetan zuen garrantzi handia kontuan hartuta ere), eta ia bi “euska” “ekonomilarien” pentsamenduari. Ez da harritzekoa, egilearen espezializazioa aduana kontu eta merkatarien prosopografiaren ildoetatik bideratu dela jakinda<sup>22</sup>, baina halako lan batean ikuspegi zabalagoa

eska daitekeela uste dut. Atala, bestalde, garaiko pentsamendu ekonomikoaren azalpen batekin hasten da, hots, gainegitura ideologikotik —batere garbia iruditzen ez zaidan irizpide bat ekonomi gaiak jorratzerakoan— eta XVI-XVIII. mendeetako “euska” “ekonomilariak” zerrendatzerakoan irizpide nahikoa lausoak erabiltzen direla pentsatzen dut<sup>23</sup>. Gauza gehiagoz hitz egin genezake (merkatariklasearen goraiatzea, E. P. Thompson-en “ekonomia moralaren” kontzeptuaren erabileraren neurrigabekoa...), baina, gehiegi ez luzatzearen, kontua bertan utziko dut. Bestalde, aipatu ditugu jadanik I. Regueraren atalen gabeziak, eta antzeko zerbait esan daiteke J. M. Imízcozen “Errejimen Zaharreko gizartea” atal nahikoa estatiko eta kontserbatoristaile kutsukoaz, “historia berria” delakoari hurbiltzen zaion hainbat lani gertatu ohi zaienez (232-243. orr.).

Egungo Aroko ataletan, hein txikiagoan bada ere, irudiko gauzak gertatzen dira. 1876tik aurrerako ataletan normalean ekonomi bilakaeren deskribapenei beste mailakoak jarraitzen badiete ere (orokorrean, eta tartean agertzen diren atal batzuk salbuetsita), ez da gauza berbera gertatzen Antzinako Errejimeneko krisiaren garaia edo Iparraldean jorratzen direnean: hemen politika eta gizarte elementuak

---

20. Tamalgarria da atal horretan *Zamakolada* ez ukitzea, hein handi batean oraindik Antzinako Errejimeneko matxinada bat bada ere; XIX. mendearen hasierakoa denez, Aro Berri eta Garaikideen artean egin ohi den banaketa kronologiko zorrotzak azkenaren baitan utzi duela pentsatu behar dugu.

21. XVII. mendeko artoaren “iraultza” bezalako gertaera bat zazpi lerrotan azaltzen duelarik, esaterako. Nekazaritza-munduari buruz gehiago jakiteko J. M. Imízcozen gizarteari buruzko atalera jo behar dugu.

22. Bere lanen artean dago *Las puertas de la vida y la muerte: la administración aduanera en las provincias vascas (1690-1780)* (Bilbo, 1995).

23. Martín de Azpilicueta —gaztetarik Euskal Herritik kanpo bizi eta ikasi zuena— “euska” ekonomiaritza har al daiteke? Gerónimo de Ustáriz, ekonomiaz jardun zuzena, baina aldi berean politikoa eta militarra izan zena, zerrendan agertzen ez den Manuel Larramendi baino “euska” eta “ekonomilariago” kontsideratu behar al dugu? Edozein kasutan, eztabaidagarria iruditzen zait, Antzinako Errejimeneko ekonomietan, ‘ekonomilari’ kontzeptuaren erabilpena, zeinari buruz egileak azalpen gehiago eman beharko bailituzkeen.

ekonomikoen aurretik doaz. Edozein kasutan, hutsunerik handienak arlo ekonomiko honetan nabaritu ditut. Aipatu dira jadanik “Bigarren industrializazioa” atalaren gabezia handiak. M. González Portillaren beste kapituluak ere (“Kapitalismoa eta lehen industrializazioa”) badu zer komentatu. Egile honek, berriro ere, eta temati, Itsasadarreko industrializazioaren tesi tradizionalari eusten dio (honen arabera euskal siderurgia eta, beraz, industria modernoaren bultzada bizkaitar meagintzaren *boom*-ak sortutako kapitalek bultzatu zuten, nagusiki edo bakarrik), ekonomi historiaren eremutik aspalditik egin zaizkion ñabardurei jaramonik egin gabe. Izan ere, horren inguruko eztabaida historiografikoa erabat ebartzitatzat ematen da, inongo argibide edo informazio gehigarriak eskaini gabe: bibliografia atalean esaten den bezala, «gaur egun, dena dela, eztabaida horrek ez du dagoeneko garrantzirik» (436. orr.). Baina ez dago halakorik: adibidez, ez dira aipatzen gai honetan erabakiorrak izan diren zenbait lan, J. M. Valdaliso eta A. Escudorenak, soilik garrantzitsuenak gogora ekartzeko<sup>24</sup>; eta gaineratu behar da teoria tradizionalari eginiko ñabardura horiek ez dutela erabat ezeztatzen M. González Portilla, M. Montero eta EHUko Historia Garaikide saileko beste zenbaiten ikuspegia, hobetzen baizik.

24. J. M. Valdaliso, “Grupos empresariales e inversión de capital en Vizcaya, 1886-1913”, *Revista de Historia Económica*, VI., 11-40 orr. (1988), J. M. Valdaliso, *Los navieros vascos y la marina mercante en España, 1860-1935. Una historia económica* (Bilbo, 1991), A. Escudero, “Minería e industrialización en Vizcaya: objeciones a una teoría tradicional”, in E. Fernández de Pinedo & J. L. Hernández (arg.), *La industrialización en el norte de España*, 178-205 orr. (Bartzelona, 1988), eta A. Escudero, “Capital minero y formación de capital en Vizcaya (1876-1913)”, in J. Nadal & A. Carreras (zuz.), *Pautas regionales de la industrialización española (siglos XIX y XX)* (Bartzelona, 1990). Atera berria da, gainera, ikerketa hauek biltzen dituen Escudorenen liburua: *Minería e industrialización en Vizcaya* (Bartzelona, 1998). Ordea, hutsik gabe aipatzen da kalitate nahikoa aldakorreko artikuluek —batzuk benetan kaxkarrak dira— osatutako *Ekonomiaz* aldizkarian argitaraturiko euskal ekonomiaren historiari buruzko lan-bilduma. Edozein kasutan, gai honi buruz ikus daiteke, baita ere, nire “Bizkaiko industrializazioa: Eztabaida historiografiko bat”, *Muga* 77, 1991ko ekaina, 20-37. orr.

25. Iruzkin hau idazten duenak, duda izpirik ez geratzeko, —besteak beste— EHUko Ekonomi Historia eta Erakundeen Sail horretako partaide dela aitortzen du eta, beraz, berari ere badagokiola zientzia-lanerako oso baliagarria ez den inkomunikazio-egoera tamalgarri horretako erruaren kuotaren bat.

Honek badauka zer ikusirik, nire ustez, ale honen egile zerrendak aurkezten duen beste hutsune batekin: EHUko historia sail guztietako partaideak aurkitzen dira bilduman, salbu eta sail batekoak, Ekonomi Historia eta Erakundeetakoak hain zuzen ere. Hemen, berriro ere, eta haxe ausentziarik garrantzitsuena ez dela aitortuz (larriagoak nabarmendu ditudala uste dut), gure unibertsitate publikoaren akatsetako batekin topo egiten dugu: sailen arteko etsaigoarekin, hau bezalako lan bat hobetzeko oso baliagarriak izango liratekeen kolaborazioen oztopo bihurtzen delarik<sup>25</sup>. Baina Egungo Historiako blokeak baditu, noski, gauza on eta erakargarriak, iruzkin honen egilearen aburuz: esaterako, A. Riverak Errestaurazio garaiko gizartearen alderdi ezberdinez idazten dituenak (357-368 orr.); J. J. Díaz Freireren “Primo de Riveraren diktadura eta Bigarren Errepublikak” atala (376-384. orr.), batez ere diktaduraren garaiari dagokionez —Errepublikarena ezagunagoa baita, orohar—; S. de Pablaren “Euskal Estatutua: foruen berrezartetik autonomiara” sintesi zehatza (385-389. orr.); eta J. P. Fusiren “1960-1970: eten urteak” (418-427. orr.), orain dela urte batzuk emandako hitzaldietan defendatutako tesiaren laburpen iradokitzailea.

Bestaldetik, Lur hiztegi entziklopedikoaren ale honek, atal arras interesgarriak eta gutxiengo koerentzia orokor bat izanda ere, baditu, ene ustez, zenbait koordinazio akats-edo. Agian lerro oso orokorrak alde batera utzita, badirudi bloke nagusi bakoitzeko zuzendariak autonomia osoa izan duela eta, alde honetatik, lotura maila handiagoa falta zaiola ematen du: aipatu dugu blokeen arteko eskema-ezberdintasunak oso handiak izan daitezkeela (bereziki nabarmena da, esan dugun bezala, Erdi Aroa eta Aro Berriaren artean). Blokeen barruan ere antzeko gauzaren bat gertatzen dela soma daiteke: errepikapenak, gainjaritzeak, inkoerentziak agertzen dira atal batzuetan zehar; orohar, egileek bere blokeko beste atalak irakurri edo ezagutzen ez dituztela ematen du, edota berrikuspen orokorrik ez dela egon; eta atal batzuen funtzioa nekez ulertzen da, blokearen osotasunaren barnean. Honen erakusgarri bezala aipa dezakegu A. Bombínek bere atalean esaten diguna: «Hemen, ordea, ez da horien aipamenik egin, ez baitagokio lan honi jurisdikzio horiek aztertzea, *baina hala ere baliteke norbaitek obra zabal honetako beste atalen batean aipatzea*» (219. orr.; letra etzanak nireak dira). Hala, Historiaurre eta Antzin Aroko blokeko J. Nuñezen erromatar arkitekturari buruzko atal xehegiak (83-91. orr.)<sup>26</sup> ez du zerikusi handirik inguruko atalen ez banaketa tematikoarekin, ez eta tonuarekin; aurreko kapituluetak datu batzuk errepikatzen ditu, eta bertan agertzen den informazioa erraz bana zitekeen gainontzeko erromatar garaia jorratzen duten

atalen artean (bereziki hirigintza, ekonomia, gizarte eta erlijioari buruzkoen artean). Erdi Aroko eskeman, liburuko trinkoena izanda ere, aurki daiteke halakorik, batez ere J. R. Díaz de Durana eta J. A. Fernández de Larrearen “Mugak, politika harremanak eta lurralde loturak Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian IX-XV. mendeetan” artikulua-rekin (113-114 orr.), aurreko S. Tena *Barbero-eta-Vigilzalearen* “Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiaren eraketa” (110-112. orr.) osatzera datorrena baina, hein batean, errepikagarriegia suertatzen dena. Errepikapenak daude, baita ere, J. M. Portilloren “Antzinako Errejimenaren krisia politikan eta erakundeetan” (282-290. orr.) eta zabalagoa den J. M. Ortíz de Orruñoren “Antzinako Errejimenaren krisia eta iraultza liberala Euskal Herrian (1793-1878)” (291-310. orr.) atalen artean; eta A. Riveraren “Errestaurazioaren urteak: politika, alderdiak eta hauteskundeak” (319-327. orr.) eta M. Monteroren “Liberalismoa, sozialismoa, euskal nazionalismoa” (333-343. orr.) erredukzionistagoaren artean —azken honek, esaterako, erabat at uzten du Nafarroaren kasua—. Bestalde, Egungo Aroko bloke honetan justifikazio eskasa dute, ene ustez, E. Alonso (“Ekonomia Kontzertua”, 328-332 orr.) eta Pedro A. Novoren (“Komunikazio bideak: errepideak, burdinbideak eta tranbiak”, 369-375. orr.) artikulua, erraz integra zitezkeelako ekonomiari edo autonomismoari buruzko ataletan, eta konkretuegiak suertatzen direlako, inguratzen dituzten beste atalekin konparatuz gero<sup>27</sup>. Honako hau hobeto ulertzen dugu aipatu egile horien

26. Bide batez, esan dezagun atal honen izenburua bera akats nabarmen bat dela: “Arkitektura zibila: zubiak” titulua badu ere (83. orr.), argi dago arkitektura mota guztiez ari dela —zibilaz eta militarraz— eta, noski, zubiak ez direla bere hizpide bakarra. “Arkitektura erromatarra”-edo izan beharko litzateke.

27. Gainera, ez dirudi osotuak daudenik ere: Alonsorenean Nafarroako Konbenioari buruzko aipamen laburrik ere ez da. Eta garraibideei buruzko atal espezifikoa batean justifikagaitza da, besteak

ikerketa eremu espezifikoa, hurrenez hurren, Kontzertu Ekonomikoa eta trenbideak izan direla jakinda<sup>28</sup>: kasu hauetan atala ez zaio egile bati eskaini, alderantziz baizik (gauza bera esan dezakegu lehen aipatu dugun I. Regueraren kasuan ere —Inkiszioa<sup>29</sup>— eta, akaso, J. Nuñezenean —arkeologia erromatarra—). Ez da ulertzen, bestalde, zergatik Egungo Aroan Iparraldeari eskainitako historiaren bilakaera 1990eko hamarkada arte heltzen den, Hego Euskal Herrikoa Burgosko auziaren garaian (Fusi) edo 1980ko industri krisian (G. Portilla) mozten den bitartean: deskoordinazio huts hau oso nabarmena da. Bestalde, Historiaurre eta Antzin Aroko ataletan hizkuntza, artea eta kulturari buruzko aipamenak nahikoa ugariak diren bitartean, hauek ia erabat desagertzen dira hurrengo ataletan aurrera egiten dugun heinean; ziurraski, Lur Entziklopedia Tematikoak baduelako gai horiei eutsiko dien beste alerik. Halere, kontua nahikoa desorekatua geratzen da, eta Historiaren azterketa-eremuaren nahikoa zentzu estua edo kontserbatzailea islatzen du.

Irizpide orokor ezaren beste adibidea «euskal» edo «Euskal Herria» hitzen erabilerari dagokio: egile bakoitzak bere erara maneiatzen ditu, batzuetan zazpi lurraldeak, beste batzuetan Hegoaldeko lauak, eta askotan Hegoaldeko hiru probintziak edo bere biztanleak izendatzerakoan. “Vasco”, “vascongado”, “País Vasco”, “Vasconia”

edota “Vascongadas” bezalako terminoen euskararako itzulpenaren zailtasunez ohartuta bagaude ere, argitalpen hau irizpide bateratu bat hartu eta justifikatu beharrean zegoela uste dut, nahasmenduetan ez erortzeko (baina, aldi berean, anakronismoak saihestuko lituzkeen erabaki bat izan beharko litzateke —Erdi Aroko pasarte batzuetan, adibidez, EAEaz hitz egiten da—: lan nekeza, edozein kasutan, eta ez naiz ni hemen soluziobidea ematera ausartuko dena). Kontuz: ez dut esan nahi «Euskal Herria» hitza ezin denik erabili, esaterako, “Vascongadas” edo zentzu mugatuko “País Vasco” itzultzeko<sup>30</sup>; aldarrikatu nahi dudana maila honetako lan batek alor honetan eduki beharko lukeen irizpide orokor eta bateratua da.

Liburuaren itxura eta irudiei dagokionez zerbait esan beharrean nagoela uste dut, entziklopedia formatoa duen lan batez ari garenez gero. Alde honeztatik hutsegiteak emaitza onak baino ugariagoak direla esan behar dut. Ez dago testuaren eta irudien arteko orekarik, entziklopedia bati eska dakioken bezala: letra tipoa, ulergarria izanda ere, txikiegia suertatzen da, eta irudiak (argazkiak, marrazkiak, mapak, eskemak, koadroak, grafikoak) urriak eta txikiegiak dira: testuaren trinkotasun itxura oso nabarmena da. Beste kontu bat da irudien egokitasuna (adibidez, 129. hh. orrialdeetako irudiena...) eta, batez ere mapa eta koadroen edukia: akatsez beteta daude, batik bat

---

beste, itsas-garraioaz ezer ez esatea —eta, aurrekoan bezala, azalpenean Nafarroa ere nahikoa marjinaturik geratzen da—.

28. E. Alonso, *El concierto económico (1878-1937): orígenes y formación de un derecho histórico* (Oñati, 1995); P. A. Novo, *La explotación de la red ferroviaria del País Vasco: mercado y ordenación del territorio* (Bilbo, 1995).

29. I. Reguera, *La inquisición española en el País Vasco (el tribunal de Calahorra, 1513-1570)* (Donostia, 1984).

30. Izan ere, hautu konsziente hori egin dugu inprimitzen ari den E. Fernández de Pinedo-ren *Crecimiento económico y transformaciones sociales del País Vasco (1100-1850)* (Madril, 1974) liburuaren euskarazko itzulpenean.



lehenengo ataletan zehar. Txikiegiak dira (gehienak), edo ez oso argiak (esaterako, Nafarroa eta Gaztela arteko mugen mapa, 112. orr., edo 116. orrialdekoa, zeinetan zeinuak ez baitiren ia desberdintzen; baita 184 eta 185.ekoak ere, edo 205 orrialdeko eskema); ez dira ondo irakurtzen, anakronismoak agertzen dituzte (esaterako, Trebiño azaltzea, hutsune bezala, Historiaurreko edo Antzin Aroko mapa batzuetan); zeinuak falta dituzte (69, 210. orr.); ez daude behar den orrialdeetan (112. orrialdekoak, adibidez, 187-191 orrialdeei dagozkie, 262 eta 263.ekoek hurrengoan egon beharko lukete, 264.ekoa 266.ean, eta 266.ekoa 269.etik aurrera, etab.) edo, testuan aipatzen badira ere, ez dira gero inon agertzen edo ez da esaten non dauden (110, 111, 126, 133 orr.); maparen batean herriak ez daude egon behar duten kokapen geografiko zehatzetan (146. orr.); koadroak azaltzen dira baina testuan ez zaigu haien funtzioaz ezer esaten (172, 173. orr.); oinetan ez zaigu informazioa ondo eskaintzen (199.eko mapak; 245 hh. orrialdeetako irudiak; 283 eta 284. orrialdeetako koadroak ez dagozkie «erakundeei», baizik eta «justizia edo zuzentza instantziei»); mapa berbera orrialde eta atal ezberdinetan errepikatzen da (221 eta 230. orr.); eta, batzuetan, mapetan erabiltzen diren termino batzuk ez dagoz guztiz bat testuan erabiltzen direnekin. Ez dirudi, beraz, kontu handiarekin ibili direnik, argitalpen honetan, alde grafikoarekin. Beste aldetik, oso lagungarria izan zitekeen aurkibide analitiko baten falta nabaritzen da, izen edo termino konkretuen bilaketa erraztearren; jakin badakit, ordea, espazio urritasunak zaila egiten duela nahikoa lan handia eskatzen duen halako aurkibide bat diseinatzea.

## V.

Bestalde, eta bukatzeko, eremu “filosofiko” eta, beraz, labainkorragoetan sartzeko ekitaldi bat egiten saiatuko naiz, laburra izango banaiz ere. Liburuan, edo, hobeto esanda, liburuaren atal batzuetan —A. Riverak sarreran esandakoaren kontra, nolabait— Mendebaldar aurrerapen edo progresuaren ideiarekiko halako atxikimendu bat somatzen da, gehienetan inkonzientea bada ere: historiak gizadiaren hobekuntzarat jotzen du, antzinakoa beti geroagokoa baino txarragoa suertatzen da, etab. Hala, «Gizakiaren bilakaera geldi baina geroz eta *aurreratuagoak*» (31. orr.) edo Neolito garaiako «*aurreramenduak*» (42. orr.) aipatzen zaizkigu; erromatarkuntza garaiako gizarteari buruzko atala Erromak suposatutako progresuaren inguruko M. Yourcenarren aipu *triumfalista* batekin burutzen da (66. orr.); «Errekonkista» bezalako terminoak ez dira zalanztan jartzen, eta beronen «atzeratzea» bezalako kontzeptu esanguratsuak erabiltzen dira (105. orr.); ildo honetatik, nahikoa adierazpen “finalistak” ematen zaizkigu “Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiaren eraketa” atalean, batik bat 111. orrialdean; Nafarroaren konkista ia-ia prozesu naturalizat jotzen da eta, edozein kasutan, ez zaigu apenas informaziorik ematen bere oinarriez (226. orr.). Gainera, «garai hartan [Aro Berrian] *ezin asmatuzkoak* ziren pobretasunaren kontrako neurriak, eta *ez zegoen behartsu guztiei laguntzeko adina baliabide*» bezalako esaldiek (243. orr.) argi azaltzen dute historialariaren ideologia. Gauza bera esan daiteke, hein batean, hain modan dagoen Cánovas-en irudiaren erreskateari buruz, zeinaren adibideren bat ere badugu orrialde hauetan (328. hh.). In-

dustrializazio eta modernizazio prozesuen ondorio ezezkorrak —ekologikoak, esaterako— ez dira apenas aipatzen, gure herrian bereziki larriak izan badira ere: natura baliabideen agorpena (burdina edo arrantzarena, kasu), itsaso eta ibaietako uren kutsadura, airearen eta zoluen poluzioa, etab. Beste batzuetan, ordea, sarreran aldarrikatzen den (15. orr.) Euskal Herriaren espezi-fizidade ezaren ideiaen aurka jotzen da, Gerra Zibilari buruzko honako aipua aurki daitekeelarik: «Anaiarteko gerra izan zen gainera Euskal Herrian, herritarren arteko gatazka zibila, Espainiako beste leku askotan ez bezala»; lehenengo baieztapenarekin erabat ados banago ere, bigarrenak zalantza izugarriak sortzen dizkit, Espainian ere anaiarteko gerra izan zela pentsatzen baitut<sup>31</sup>. Bestalde, nahikoa inpresio txarra egiten du «gizon» hitzaren erabilera estentsiboak (ager-tzen den leku gehienetan «gizaki», «populazio» edo «jende» bezalako terminoak erabil daitezkeelarik), edo giza-populazioari deitzeko «giza-baliabideak» bezalako espresio bide ekonomizista eta reifikatzailea erabiltzeak (196. orr.). Ildo honetatik, emaku-

meen historiari buruzko aipamen gehiago falta dela somatzen da, arlo honi buruzko ikerketa eta lanak ugaldtu baitira, gure artean ere, azken aldi honetan<sup>32</sup>.

## VI.

Edozein kasutan, ez nuke iruzkin pertsonal horien garrantzia handizkatu nahi. Liburua, orohar, ondo dago, gehienetan irakurterraza da eta nik neuk behintzat, aipamen hau egiteko irakurtzen nuelarik, ikasi dudala sentitu dut —egile batzuekin gehiago beste batzuekin baino, noski, eta baita itzulpenarekin ere—. Halako lan bat euskaraz argitaratzea ere ez da txantxetako gauza, eta aprezioa egin behar zaio. Baina muga nahikoa argiak dituen obra bat dela esan behar dut eta, tamalez, muga horiek asegabe utzi naute. Laburbilduz, itzulpena izateak eta itzulpen hori historialari euskaradunen kontrolpean ez egoteak zehaztasuna eta lan-tresna izateko gaitasuna murrizten diote Lur Entziklopedia Tematikoaren atal honi. Bestalde, lurraldeen arteko orekak, beste obra batzuetan baino era egokiagoan islatzen saiatzen badira ere, hutsegite nabarmengarriak

31. Egia esan, esaldi honi buelta asko eman eta gero, huts tipografikoa edo itzulpen akatsa izan zitekeela pentsatzera heldu nintzen, eta «ez» hura soberan zegoela, eta, beraz, egileak benetan «Espainiako beste leku askotan bezala» esan nahi zuela; José Saramagoren *História do Cerco de Lisboa* nobelan gertatzen denaren antzeko zerbait, alegia. Ideia hau baztertu behar izan dut, atalaren autoreak berriki prentsari Gerra Zibilaz egindako adierazpenak irakurri ondoren (*El País del País Vasco*, 1998-X-25, 8. orr.): «aquí, más que en otras partes, fue un conflicto civil». Azkenean, Euskal Herriaren historia, berritua ere, ezberdina da. Honen azalpena, ordea, pasarte bereberek aurki dezakegula uste dut, Lur Entziklopediako artikuluan pixkat beherago: anaiarteko etsaigo horrek, besteak beste, gure 1970-80 hamarkadetako *trantsizioan* izandako eragina baita lerro horien hizpide nagusia. Edozein modutan, egunkari bati egiten zaizkion adierazpenetan ez bezala, ene iritzian hau bezalako liburu batean aipatutakoaren antzeko baieztapenen azalpen sakon eta luzexegoaren beharrean gaude: egileak ñabardura egokiak gehitu izan balitu, agian ez geniokeen halako iruzkinik gaineratuko jada nahikoa luzea den liburu-aipamen honi.

32. Esaterako: J. A. Azpiazu, *Mujeres vascas, sumisión y poder: la condición femenina en la alta edad moderna* (Donostia, 1995; bibliografian aipatzen bada ere, ez dirudi Aro Berriko gizarteari buruzko atalean gehiegi erabili denik); P. Pérez Fuentes, *Vivir y morir en las minas: estrategias familiares y relaciones de género en la primera industrialización vizcaína (1877-1913)* (Leioa, 1993); M. Ugalde, *Mujeres y nacionalismo vasco: génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza (1906-1936)* (Leioa, 1993). Maila dibulgatiboago batean T. del Valle, *Las mujeres en Euskal Herria: ayer y hoy* (Donostia, 1996).

izaten jarraitzen du, batez ere Ipar Euskal Herriari dagokionean. Alde honetatik, gehiegi somatzen da Hegoaldeko lan bat dela, hitzaurrean aipatzen ziren helburuen aurka: Iparraldea kontuan izateko ohitura handiagoa hartu behar dugu, eta ez hizkuntza kontuetan bakarrik<sup>33</sup>.

Gainera, obrak planteatzen duen unibertsitaria / unibertsitatetik kanpoaren arteko dikotomiak zurrunezia dirudi eta, edozelan ere, sailen arteko etsaigoetatik ondorioztatzen diren hutsuneek ez digute gauza onik adierazten unibertsitate munduaren zientzi-gardentasun erabatekoaz. Bestetik, eta aurrekoarekin nolabait lotuta, ezin da esan filosofia eta planteamendu aldetik lan bereziki aurrerakoia denik, egileen arteko desberdintasun nabarmenak baitaude (batzuek, ikusi dugun

bezala, joera historiografiko-ideologiko nahikoa kotserbatzaileak aurkezten dituztelarik): historia ekologikoaren, intelektualaren edo kulturalaren zantzurik ez egoteak, esaterako, pixka bat zaharkitzen du, ene uste apalean, bilduma hau. Azkenik, plan orokor zehatzago bat ez jarraitzeak —honek dakartzan artikuluen arteko ikuspegi, elkar-zanpatze eta kalitate gorabeherekin— hankamotz uzten du, nire iritziz, itxaropen handiak sortzen zituen *Euskal Herriaren Historia* hau.

Edozein kasutan, euskal historiazaileek ezinbesteko kontsulta liburutzat izango dugu aurrerantzean. Eta euskaldun euskaradun historialariek jorratu beharreko bidearen erakusle bihurtu beharko genuke. Lehen bait lehen lanean jartzeko, jakina.

*Iban Zaldúa Gonzalez*

---

33. Cfr. Ibon Sarasola, *Euskara batuaren ajeak* (Irun, 1997).